

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

Zenbait material informatiko doan besterentzeko prozedura

Prozedura-mota: doako besterentzea

Xedea: Batzarren jabetzeko hainbat material informatiko, desafektatua eta zerbitzurako ezgaitzat joa.

Esleitzeko modua: zuzena pleguan ezarritako eskakizunak betetzen dituzten inprimagai-lu-eskatzaileen artean.

Interesdunak: kontratatze gaitasuna duten irabazi asmorik gabeko fundazioak, elkarteak eta erakundeak, pleguaren arabera.

Prezioa: ondasunak doan besterenduko dira eta erakunde esleipendunek ez diete inolako kontraprestaziorik eman behar Arabako Batzar Nagusiei.

Informazioa jasotzea: Baldintza juridiko-ekonomikoen plegua erakunde interesdunen eskura dago:

- Arabako Batzar Nagusien egoitzan, Vicente Goikoetxea kalea 2, Vitoria-Gasteiz.
- Arabako Batzar Nagusien web orrialdearen kontratatzailearen profilean.

Eskabideak aurkezteko lekua:

– Arabako Batzar Nagusietako erregistroa, Vicente Goikoetxea kalea 2, Vitoria-Gasteiz, 8:30etik 15:00etara, deialdiaren oinarrietan eransten diren 1 eta 2 ereduak erabiliz.

– contratacion@jjggalava.eus helbide elektronikoaren bidez, 1 eta 2 ereduak beteta eta digitalizatuta edo eskaneatuta bidaliz.

Eskabideak aurkezteko epemuga: Epea da 15 egun baliodunekoa iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Batzarretako kontratatzailearen profilaren web orriko iragarkian, aurkezteko epemuga zehaztuko da behin ALHAOn argitalpena egin ondoren.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 15a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA